

**Vinagre de moderna taldeak bere lehen diskoa kaleratu dau**

12. orrialdea

**Kolazinoko Mendi Eguna hilaren 8an**

Mendi Lasterketea, Mendi Martxea eta BTT Martxako probak jokatuko dira Kolazinoko Mendi Egunean, apirilaren 8an, Bedian, Tiritu Kultur Elkarteak antolatuta. Arrastian erromeria egongo da Jokaldi taldeagaz.

Martxakoak urtengo dira lehenengo, gero txirindulariak, mendi lasterketakoak ostean eta azkenik gazteen lasterketearen txandea izango da. **11. orrialdea**



**Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina martxan Dima eta Igorren**

12. orrialdea

TOKIKOM

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**271**

2017ko apirilaren 1a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Hasi da Korrika

Martiaren 30ean, arrastiko bostetan abiatu zan 20. Korrika Otxandiotik. Otxandio Arratiako AEKren eremuan dago eskola zein Korrikari jagokonean. Horregaitik eta Otxandiotik abiatzea Arratiako AEK-ren proposamena izan zalako, lotura berezia dauka Arratiagaz 20. Korrikak. Arratiatik, apirilaren 7ko goizaldean pasauko da.

**B**ediatik sartuko da gauerdian, 00:36ean, eta bailara osoa zeharkatuko dau iparretik hegora, euskerearen aldeko karrereak, lau t'erdia aldean Ubidetik urten aurretik. 51 kilometro egingo ditu eta 64 aldiz aldatuko da eskuz lekukoa gure bailaran. Dimatik ez da pasauko aurten, baina dimoztarrak parte hartuko dabe Ko-

rrikan. Korrika Txiki eta beste ekitaldi batzuk egiteaz gainera, 8 kilometrotan eroango dabe lekukoa.

Apirilaren 6an, Korrika Txiki egingo dabe herri gehienetan, eta arrasti-iluntze partetik Korrika pasau arte, hainbat ekintza egiteko aukerea egongo da herri batzuetan. **8. eta 9. orrialdeak**



Korrikaren hasikerea Otxandion.

Argazkia: Arratiako AEK.

### IGORRE

**Kale erabilerea 20 puntu igo da 15 urtetan**

Soziolinguistikako Klusterrak Igorreko kale erabilerearen neurketako datuak aurkeztu ebazan martiaren 16an. Kale neurketea 2016ko urrietan egin zan eta sano datu positiboak emon dauz. Kanean entzundako alkarizketen %53,3 euskeraz izan ziran; 2001ean, barriz, %32,9. Beraz, 15 urtetan, 20 puntu egin dau gora euskerearen erabilereak Igorren. Gainera, euskaldunak %68 ziran 2011n, eta hortik espero eitekean erabilera erreala, hamabost puntu gehiagokoa izan da.

Kezkagarria izan daiteken datu ia bakarra, ume eta gazteen arteko erabilerearen aldea da. Izan be, umeai entzundako alkarizketen %68,8 euskeraz zan eta gazteen kasuan %39,2 baino ez. **5. orrialdea**

### IGORRE

**Euskal Herriko gazteak Igorren**

Ernai eta Aitzina Gazte Antolakundeak antolatuten dabezan topaketetan Euskal Herri osoko gazteak batuko dira independentziaren aldeko hausnarketea egiteko Gazte Akelarrea deitutako udabarriko ekimenean. Ber-baldi, mahai-inguru eta tailer politikoez gainera, kirol eta kultura eskeintza handia dakar Gazte Akelarreak. Apirilaren 14 eta 15ean, Igorren gazteak, Eskupelota Txapelketea, Eskalada Txapelketea, kirol eskeintza handia eta 29 talde ingururen kontzertuak izango ditue. **7. orrialdea**



**ARTEAKO UDALA KORRIKA ETA EUSKARAREN ALDE**



Bat, izan bat, egin bat,  
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat,  
bat eta batzuk gara,  
hona-hara  
euskara bat, mundu bat.

ARTEAKO UDALA



# ARRATIA KOLOREETAN

## AREATZAKO BANDA

Kulturari lotutako herririk bada, Areatza dogu hori! Horregaitik, beldanik herrian izandako ohitura musikilagaz aurrera egin guran, 1977. urtean, Agrupación Artística Villaresa-ko kideak bultzatuta, Kaixo fanfaria sortu zan helburu argiagaz: musika akademia bat sortzeako dirua biltzea, beti be akademian egungo bandako musikariak sortzeako balio eian. Honeek holan, 1983.ean, egungo musika bandeak bideari ekin eutsan San Bartolome jaietako kontzertuan.

Gerostik, ehundaka kontzertu, emonaldi eta *show* montau ditu Areatzako Bandak etxean zein kanpoan, bakarrik zein lagunduta. Arratia mailan urte amaierako kontzertua ohitura bihurtzea lortu dogu. Horretan jarraitzeko, ez jaku geure udalaren eta herritarren

laguntzea falta izan. Ezta ondoko herrietako udalen laguntzea be eta Igorren San Antonio eta Gabonetako kontzertuak ohitura bihurtzea ahalbidetu deuskue. Gure partez, bihotz-bihotzez eskerrik beroenak.

Nahiz eta Kaixoren espiritu bardinagaz jarraitu, bandeak bere helburuak egungo kontestura moldatu ditu zeozertxo. Musikarien formakuntzea, berauen gozamina eta herriaren izen ona zabaltzea daukaguz helburu esanguratsuenen artean. Bandearen kudeaketan be sartu doguz aldaketak. Izan be, bandea kudeatuten dauan batzordeak eredu parte hartzailea bultzatzen dau. Bertan, edozein bandakidek parte hartu daike; beti be, ardura batzuen trukean.

Dana dala, gurago geunke mu-



sika banda honen energia barriztagarria balitz. Nahiz eta banda momentu zoragarri baten egon, hainbat faktore dirala medio, harrobia ahultzeko erreztasuna beti dago gure pentsamentuetan. Askotan, talde kultural askotako zuzendaritzak egiten dauan akats sarrirentako bat, gazteak gaur egun daukien kirol eta beste-

lako jardueren eskeintzeari errua botatea izaten da. Faktoreetako bat izan badaiteke be, ez dago autokritika eta barrikuntza faltea lango akats handiagorik talde kultural dinamiko baten barruan. Eta prozesu horretan hain zuzen be parte hartzeako prest dagozan musikari gazte, ume zein heldu guztiai luzatzen deutsegu eskua.

Erdu geugaz! Taldearen partaide sentiduko zara heldu bezain laster. Bizkaian musika banda batez harro sentiduten dan herri txiki gitxietako bat dogu Areatza eta horretan jardungo dogu, danon laguntzeagaz, basamortu honetan dagoan oasi txiki honen urak babestuz eta musikatuz.

**Areatzako Banda (Areatza)**

### TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Martiaren 27tik apirilaren 2ra**  
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**  
Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
**Apirilaren 3tik 9ra**  
N. Arieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Saillburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**  
Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
**Apirilaren 10etik 16ra**  
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**  
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.  
**Urte osoan**  
**22:00etatik 09:00etara**  
Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30  
**Igorre:** 94 600 74 63  
**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**  
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15  
**Gorbeialde**  
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01  
**Parketxea** 94 673 92 79  
**Igorreko Kultur Etxea**  
94 673 62 51  
**Gorbeialde Irratia**  
94 631 52 90  
**Euskotren** 902 543 210  
**Areatzako Notarioriza**  
94 673 92 26

**Bizkaibus\* 902 222 265**  
**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.  
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.  
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.  
Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.  
Orduro: 05:45etik 21:45era.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.  
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.  
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**  
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.  
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**  
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.  
**Otxandiotik urteerak:**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.  
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.  
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Arriorriaga**  
Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.  
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

**Zeberio-Arriorriaga**  
Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.  
**Arriorriaga-Zeberio-Artea**  
Arriorriagatik 12:40ean urteten dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.  
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Arriorriaga-Zeberio**  
Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.  
Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union\* 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan.  
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urteten dau Bilbotik.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.  
Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik. Otxandio korik ez dago.

### Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefona:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.  
**Erredakzio burua:** Beatriz Azpuri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzio taldea:** Maite Arrizabalaga, Iban Gortazar eta Alvaro Rabelli.  
**Maketazinoa:** Beatriz Azpuri eta Iñigo Iruarizaga.  
**Publizitatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketa:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Ines Arenas, Iker Perez eta Ismael Martinez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tirada:** 7.000 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Baietz parte hartu Noka talde feministan!

Noka talde feministaren auzen-solasaldia egin gura dogu, alde batetik, taldea ezetu arazoteko asmoz, eta, bestetik, feminismoaren inguruan dabilzan neska eta andrai talde irekia garala gogora arazoteko.

Horretarako, saio batera konbidatu gura zaituegu: alkar ezetuteko; zelango Arratia feminista gura dogun batera amesteko eta saretzeko.

Noka entzutean hamaika berba, istorio eta oroipen etorten jakuz burura. Talde feministan parte hartzeak androk ahalduntzeko aukerea ematen deusku: biziteko era bat eskeintzen deusku; baita hemen eta orain, aktibismoa herrian egiteko aukerea be.

Guri, saio hau prestatzerakoan berba honeek etorri jakuz burura: eraldaketea, bizipoza, burrukea, askatasuna, alkarlana, sarea, feminismoa, hausnarketea, aktibismoa, gozamina, alkar zaintza eta indarra!

Feminismoa bultzatzeko ekimenak egiten doguz, geure amorrua eta haserrea bideratzeko edo geure hausnarketak, bizipoza eta aldarrikapenak ezetu arazoteko, partekatze eta aberasteko. Azken finean, Igorretik hasita, jen-

tarte hobe bat eregiteko, danok izan gaitzan libre gura doguna izateko, sexua aske biziteko eta patriarkaduak sorrarazten dituan diskriminazio egoerai aurre egiteko.

Horretarako, taldea oso garrantzitsua da eta hori indartu gura dogu. Urteen podesuz, batzuk joan, besteak etorri, Nokakideak aldatu egin dira, eta gaur egun, Noka osotuten dogunok inplikatuzino maila desbardina daukagun zortzi bat lagun gara.

Jakinmina, gogoia, edota zalan-zak badaukazuz, lotsak eta bildurrak alde batera itxi eta batzarrera hurreratzera animetan zaitugu.

Apirilaren 11n, 19:00etan, Igoerreko Kultur Etxera hurreratu inongo konpromiso barik.

Gora burruka feministea!

#### NOKA TALDE FEMINISTA

### Eskolea eta erlijinoa

Lasai gelditu nintzan erlijinoa Europako hainbat estatutako Hezkuntza Sistemaren barruan dagoala irakurtean. Lastima ez dala aitaten zer ematen dan erlijino saioetan; ea Suedian, hemengo moduan, klaseen oinarria pelikulak ikusteak dan. Beste alde-tik, ez da esaten ea Alemanian, hemengo moduan, "irakasleak" Hezkuntza Sistematan atzeko atetik sartzean diran obispadoak

entxufauta. Eta ez neban irakurri Finlandian, hemengo moduan, erlijino katolikoa emoteko, gitxiengo baten ideologia azken finean, gutxiengo dirua erabilten dan. Gainera, ez deuskue esaten, Europako estatu horreetan, hemengo moduan, erlijino gela bat sortzeako eta, beraz, irakaslea egoteko, ikasle bat nahikoa dan, beste aukerako arloetan 12 eskatzen diran bitartean.

Hogetabost familia horreek badaukie euren seme-alabai katolizismoa erakusteko eskubidea. Etxean egin daiek edota parrokoari eskatuta eleizako lokalatan. Eskola publikoa, mundu osoan onartutako ezaguera zientifiko eta kontrastuak emoteko lekua da. Ideologiak, sinesmenak eta sineskeriak baztertu behar doguz nahiz eta persona bakotzak, bere ingurune pribaduan, jarraituteko eskubidea izan.

Beste gauza bat da erlijinoa fenomeno historiko moduan azaltzea Historiaurretik XXI. mendera arte, eta ze aportazio egin dauzan arte eta politikan. Baina hori aspalditik egiten da Historia saioetan irakasle profesionalakaz.

#### AITA BAT

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:  
Zertu Kultur Elkarte  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

#### BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA



### IZASKUN ATUTXA

Jabekuntza Eskolako ikaslea

### 7 gorputz jakinduria errezeta osasungarri bihurtu daitekezanak

Zazpi jakinduria honeen gainean egin euskun berba Virginia Imazek, Arratiako Jabekuntza Eskoleak antolatutako Umorea eta andrak ikastaroko irakaslerik onenak. Ikastaroa zezelaren 24 eta 25ean izan zan Igorren. Duda barik, ikastaroa ez zan bardina izango pailaza jakintsuaren parte hartzea barik; honek bere jakintzeagaz bereganatu ginduzan eta talde osoagaz konektatu eban.

Esan euskun oxigeno gehiagaz hobeto pentsetan dogula eta horregaitik oxigenoaren mobimentua errezen dabezan gorputzaren jakinduriak zeintzuk diran ikasi genduzan. Honako honeek dira:

- Aharrausia. Hemendik aurrera badakizu persona bat ahozabalka ikusten dozunean, akaso ez dala aspertuta dagoalako; bere burmuinak hobeto pentsetako oxigeno gehiago behar daualako baino.

- Arnasa. Egoera emozional bako-tzak arnasa hartzeako modu zehatz bat dauka. Eta ariketa ugari dagoz behar dan moduan erlajatzan lagunduteko.

- Harridura. Harritzeko gaitasuna errekueretea inportantea da. Begiak eta ahoa zabaldu eta arnasa hartu. Zenbat eta gehiago harritu, oxigeno gehiago sartzan da gure burmuinean, kontrola moteldu egiten da, askatu. Zeure

burua zabaltzen dozunean, ez dozu bestea epaitzen eta hori oso inportantea da.

- Hasperena. Hasperenen bitartez min egiten deustana urtetan ixten dot.

- Orgasmoa. Kontuan izan behar da doministukuan 200 gihar inguru mobiduten dirala, barre al-garan 240 inguru eta orgasmoagaz 260 inguru. Giharrak mobidu ezker, oxigenoa burmuinera hel-tzean da.

- Kantuan eta jantzan egin. Kantetako ohiturea galdu egin da. Lehen kantau egiten zan mezatan, ospakizunetan... Kantuan tensio-na kentzean da.

- Barrea. Gimnasiarik onena da. Erabilten dozun bokalaren arabera, gorputzaren parte batentzako da onura. Barrea "a" bokalagaz bada, zirkulazio sistemarentzat da ona, "o" bokalagaz barre egiteak digestinoarentzat da ona, eta abar.

Arazo, kezka eta gatazkaren arteko desbardintasunen gainean be egin eban berba. Arazo bat da, barbarako, ontzi-garbigailua hondatzen danean. Kezka edo preokupazioagaz askotan gertatzen da gertatu aurretik arduratzen garala, onena da gauzez arduratzea egoerak holan eskatzen dauanean. Gatazkak, barriz, norberaren barrukaldeagaz zerkusua dauka.

Virginiagaz egindako ikastaro hau oso terapeutikoa suertatu zan eta bere hausnarketa, aholku eta komentario guztiakaz disfrutau genduan. Horregaitik, eta duda barik, ikastaro hau oso gomendagarria da andra guztientzat eta animau gura dot Arratiako Jabekuntza Eskolea ikastaro hau gehiagotan antolatu dagian, ahalik eta andrazko gehienak parte hartu dagien.

Aholkatutako ariketa batzuk: Aharrausia eragin. Jaiki edo altxatzen nazan bako-txean giharrak luzatu. Giharrak luzatu behar dodan guztietan. Arnas ariketak. Egunean bost bider harritu. Barrearen gimnasia: aharrausia, arnasa hartze konektatu eta konszientea, harridura, hasperena, orgasmoa, kantuan eta jantzan egin, barre egin. Barre egin gorputz guztiagaz eta bokal guztiakaz.

\* Erredakzioan itzulia

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Ardura izan



Zeozek norberarengan izan leiken ondorioa ikusita, eragin handia edo txikia dauan adierazoteko ardura izan aditzegitura erabilten dogu (ardure ixin, ahoskatuta). Batuan, axola izan edo inporta izan esaten da. Adibide modura, honako Arratiako herri-kanta zahar hau dakargu oraingo honetan: "Baltza nazela dinoste, / baia neuri deust ardura gitxi; / ardaoa be baltza da, / baia askok egiten dau erosi".

**BATZ 50 urte**  
BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)  
**IZAN GINAN...**  
**...BAGARA ETA IZANGO GARA**

**LUMATUTEN****JUAN MANUEL  
ETXEBARRIA AYESTA****Pazko eguna**

**E**leiza katolikoarentzat egun handia izan da eta bada Pazko eguna. Egutegira bagoaz, urtetik urtera aurreratu edo atzeratu egiten da egun hau. Aikomen aldaketa horren zergaitia. Julio Cesarrek, K.a.ko 46. urtean, Alejandriako Sosigenes astronomoaren laguntzaz osotu eban egutegia kristautu eta egokitu egin eban Gregorio XIII. Aita Santuak 1582. urtean. Egutegi kristautu horren arabera, Pazko eguna itargiaren idargi beteagaz lotuta dago. Hartu edozein urtetako egutegiko martiaren 21eko udabariaren hasikerea eta joan aurrera idargi bete aurkitu arte. Idargi bete horretatik aurrera, lehenengo datorren domekea, Pazko eguna izango da beti. Horrexegaitik aldatzen da garaiz urtero. Behin Pazko eguna jakinda, aste bete lehenago Erramu eguna daukagu, eta hortik berrogei egun lehenago, hautseguna, hau da, garizumearen hasikerea. Garizuma latineko "quadragesima"tik dator. (40. eguna). Horrexegaitik

ospatzen dira aratusteak edo inauteriak garizuma aurrexoan, garizumea errespetetako.

Pazko egun handia dala-eta, Eleiza katolikoaren aginduetariko bat "Pazkoazkoaz" betetea izan da orainsurarte, hau da, urtean zehar, gitxienez baten, konfesau lehenago eta komulgau gero Pazko egunean. Hau dala-eta, Pazko egunaren aurreko egunetan gogojardun edo ejerzizioak egiten ziran gure parroketan, misinolariak bitarteko. Garizuma barruan eleiza-agindu gehiago be bae goan Vatikanoko II. Kontzilioa heldu arte. Esaterako, bijilia eta baraua egitearena. Hasikera baten, urteko bariku guztiak ziran bijilia-egunak. Baina gero, bulda-agiria ordaindu ezkerok, okela gorria jan leitekean barikuetan, garizumakoetan eta Gabon egunean izan ezik. Eleiza kutsutik kanporako be egun handia dogu Pazko eguna. Egun honetan Euskal Herria Aberri Eguna ospatzen dogu.

Ohitura mundura bagoaz eta galduz badoa be, badaukagu euki be opari-ohitura polit bat. Zein? eta haxe: morrokotea edo mokotsa oparitzearena. Gaur egun gauza asko dago oparitzeko baina lehenago, ezeukia bitarteko, Pazko egunez, aitabitxi-amabitxiak morrokotea edo mokotsa oparitzen eutseen euren besoetakoai. Pazkoa bezperako labesuan, beste errariakaz batera, arrautza bat erdian dauala, hiru puntako pamitxa bat erretan zan labean eta gero oparitu. Ze gozo! Bizikerak bizikera, ohiturak ohitura, aikomen Pazko inguruko kultura.

**ZERTZEAN****AINHOA MENDIA****BEGI TXINDORRA**

**O**lazabalgo andrak pasa dan zapatuan, martiak 18, eguna batera kontu kontari pasetako asmoagaz, Bilbora joan ginan.

Bertan bizi garan 16 andra joan ginan.

Urten aurretik, orain dala 100 urte inguru bertako arbasoak egin-dako argazkia imitauz, ermita aurreko harexpean argazkia atera genduan.

Egitaraua haxe izan zan:

Udaletxe aurrean hasi eta Guggenheim Museoraino oinez joan, inguru horretan egindako barrikuntzak ikusi eta komentauz.

Guggenheim Museoko Bistro jatetxean nekea kendu bazkari on bategaz.

Bazkaldu ondoren, beste paseotxo bat Euskalduna Jauregiraino.

Azkenik, tranbian abiapuntura itzuli eta barriz auzora.

Ibilbidean zehar hainbat argazki atera genduzan baina esanguratsuena armiama azpian ateratakoa danez, testuaren alboan topau daikezue.

Auzora heldu ginanean, hurrengo baterako planak egiten hasi ginan.

**Olazabalgo andrak**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**LORAZAINTZA**

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisci.com

Zugaitik **BEGITU**ten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)

**Lehendakari Agirre, 8 behea**  
48140 Igorre

**Tfnoa: 94 631 80 04**

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

## IGORRE

# Euskerearen kaleko erabilereak 20 puntu egin dau gora 15 urtetan

Soziolinguistikako Klusterrak Igorreko kale erabilerearen neurketako datuak aurkeztu ditu. Kale neurketea 2016ko urrietan egin zan eta sano datu positiboak emon dauz. Klean entzundako alkarrizketen %53,3 euskeraz izan ziran. Igorren euskaldunak %68 ziran 2011n (Eustat-ek ez dauz publikatu 2016ko datuak). Hortik espero daiteken erabilera edo erabilera isotropikoa, %38,5 da, eta erabilera erreala, espero daitekena baino hamabost puntu gora dago. Atzen kale neurketatik be, sei puntu egin dau gora euskerearen erabilereak Igorreko kaleetan.

### Erredakzioa

Kale neurketak egiteko herriko kalerik jentetsuenak biltzea izaten da neurtzaileen helburu nagusia. Igorren kale neurketea egiteko, ibilbide bardina egin eben zortzi egunetan: Elexalde kalea, Garbe, Olabari, Beheko plaza eta erdigunea, hain zuzen be. Neurketak, 2016ko urri lehenengoaren 28tik urri bigarrenaren 27ra egin zituen, zortzi egunetan zehar, 20 orduz guztira; eta 4.552 herritarren 1.655 alkarrizketa behatu ebezan. Igorreko kaleetako hizkuntzearen erabilera lau aldiz neurtu dau Soziolinguistikako

Klusterrak. 2001ean, Igorreko kaleetan entzun eitekean euskerearen erabilera %32,9koa izan zan; 2006an, %36,4koa; 2011n, %46,8koa eta 2016an, %53,3koa. Euskerearen kale erabilera Euskal Herrian %13,3koa da eta Bizkaian, %9,4koa, 2011ko datuen arabera.

### Ezagutzak gorabeherak

Erabilereak 15 urteotan beti gora egin badau be, hizkuntza gaitasuna gorabeheratsua izan da atzen 25 urteotan eta gaur egun 1986koaren antzekoa da. Izan be, 1986an euskaldunak %67 ziran eta 2011n, %68. Lehenengo ha-

mar urteetan, 10 puntuko igoera gertatu zan, 1986ko %67tik, 1996ko %77,2ra; baina hurrengo hamabost urteotan ia horrenbesteko jeitsiera izan dau, %68ra heldu arte. Beraz, 25 urteko epean, hizkuntza gaitasunari jagokonean aldi bi bereiztu daitezke; lehen hamar urteetan populazioaren euskalduntzearen joerea egon da eta hurrengo hamabost urteetan geldialdia edo beheranzko joera.

### Ume eta gazteen arteko erabileran tarte handia

Sexuaren arabera, andrazkoak gehiago erabilten dabe euskeria (%56,4) gizonezkoak baino



Belen Uranga Soziolinguistikako Klusterrekoa aurkezpenean.

(%49,2).

Edadearen arabera, alde esanguratsuak antzeman ditue ikertzailak. Igorren, beste herri askotan lez, umeak, 2 eta 14 urte bitartekoak, dira euskera gehien erabilten dabenak (%68,8). Ondoren helduak dira, (%47). 15 eta 24 urte bitarteko gazteen erabilera, %39,2koa da, eta edadekoak, 64 urtetik gorakoak erabilten dabe euskera gitxien (%38). Hamabost urteko epealdiari (2001-2016) erreparatzen badeutsagu ikusi daiteke umeen eta helduen arteko euskerearen erabileran igoera nabarmena gertatu dala. Umeen kasuan etenbakoa izan da igoera hori 2001eko %34tik 2016ko %68,8ra; eta helduen kasuan %27,5etik 2016ko %47,2ra. Gazteen eta adinekoen artean barriz, hainbat gorabeheraren

ondoren ia abiapuntuko balioetara itzuli dira datuak kasu bietan: adinekoen artean %35,2koa zan euskerearen erabilera 2001ean eta %38koa da 2016an; eta gazteen kasuan %40,6tik %39,2ra pasau da. Gazteak dira euskerearen gaitasunetik erabilerara gehien urruntzen dan adin-tartea. Izan be, gazteen %81,5 dira euskaldunak. Hori dala eta, ume eta gazteen artean gertatutako alde nabarmenari arreta bereziagaz begiratutea gomendatzen dabe Klusterrekoak.

Talde mistoetan, hau da, ume eta nagusiak dagozan taldeetan, gehiago egiten da euskeraz. Umeak bakarrik dagozanean, %65,4ko erabilera daukie eta nagusiak ume barik dagozanean %34,3koa. Umez eta helduez osotutako taldeetan barriz, %69,9tan da euskerearen erabilera.

## ARRATIA

# Hezkuntzako grebak segmentu handia

ELA, LAB eta Steilas sindikatuak martiaren 22an deitutako hezkuntza publikoko grebak %82,4ko segmentua izan eban Arratiako eskola eta institutuetan.

Hurrengo egunean, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak greba egin eben LOMCEgaz desadostasuna erakusteko.

### Erredakzioa

Aurreko asteetan, hezkuntza publikoan egindako murrizketen kontra eta lan baldintzak hobetuteko, eskolara sartu aurretik alkarretaritzeak egin ebezan Lemoa eta Igorreko irakasleak. Sindikatuen arabera, mobilizazio honeen guztien eskaera nagusiak, "hezkuntza inbersinoa, langile kopurua eta baliabideak handitzea, behin-behinekotasun mailak murriztea, gelako ikasle kopurua murriztea, soldatetan, ordezkapenetan, bajetan, erretiroan... ezarritako murrizketak alde batera ixtea, ikasle euskaldun eleanizdunak sortu dituan euskerazko murgiltze ereduak garatzea, LOMCE eta Heziberri bertan behera ixtea,

hezkuntzaren merkantilizazioa alde batera itxiz, eta hezkuntza bardintasuna, justizia soziala, integrazioa eta gizarte kohesinoa bermatuteko oinarriko tresna izatea" ziran.

### Arratian segmentu handia

Salbuespen batez, orokorrean jarraipen handia izan eban greba deialdiak Arratian. Areatzako Herri Eskolan irakasleen %35k baino ez eben grebarik egin. Arteako Ikastola Arratian barriz, segmentua %80koa izan zan. Dimako Ugarana eskolan irakasle guztiak egin eben greba eta gitxieneko zerbitzuak baino ez ziran bete.

Igorreko Inazio Zubizarreta eskolan, irakasleen %90k egin eban greba

eta aurreko bariku bietan konzentrazioa egin eben eskolak hasi baino ordu laurden lehenago. Lemoako JB Eguzkitza Meabe eskolan be, irakasleen %93k jarraipena emon eutsien grebari. Hemen be eskolak hasi aurretik alkarretaritzeak egin ebezan irakasleak aste osoan zehar, "murrizketarik ez" eta "ordezkapenak lehenengo egunetik" eskatzen eben kartelakaz. Zeanurin, irakasleen %86k egin eban greba eta Zeberriko Zubialde eskolan gitxieneko zerbitzuak baino ez ziran bete.

Hurrengo egunean Arratia Institutuko eta Lemoako JB Eguzkitza Meabe IPIko DBHko 3. eta 4. mailakoak egin eben greba LOMCEren kontra protestea egiteko.

## ARTEA

# Arteako Udalak baso bi erostea ebatzi dau

### Erredakzioa

Balorazioa egin ostean, Arteako EH Bilduk eta Aldatuz Herri Plataformeak osotuten daben udal gobernuak basoen garrantzia ikusita, martiaren 14ko osoko bilkuran Udalak baso bi erostea onartu eban, bertan pinuen orde haretzak landatuteko. Basoak Akarate inguruan eta Sarasolan dagoz eta 10.000 m<sup>2</sup> ditue. Horretarako 45.000 bat euro zuzenduko dira. EAJ-PNV, oposizino taldea, ebatzi honen kontra agertu zan.

Udal gobernuak basoak erostea garrantzitsutzat jotzen dau, "bertoko arbolen ondarea galduten gabizalako basoen kudeaketa pribadua eta neurribakoa dalako", Igor Etxaniz Arteako alkatearen berbetan, eta ekimen honen helburua, pinuak eta eukaliptuak dakarren hondamendia gelditutea eta bertako arbolak hasten ixtea da. Gainera, basotik ateratako etekina,

basoan inbertidu behar dala dino Etxanizek eta herri basoetako bat bota dabenez aurtan, diru hori, diputazioarenagaz eta "inbersino txiki batez" basoak erosteko erabiliko ditue. Alkatearen arabera, Foru Aldundiak 13.500 euro emongo deutzaz horretarako Arteari Hobekuntza Funtsetik.

Jeltzaleen ustez, barriz, herriak "premina edo lehentasun handiagoak" ditu eta basoetan inbertiduteko ez dago zertan basorik erosi, herriak basoak baditu-eta.



## DIMA

**Arratiako Egoitzak barritu egin dau Libera-Care Ziurtagiria****Erredakzioa**

Arratiako Egoitzak, Arratiako Udalen Mankomunitatearen erakunde autonomoak, Libera-Care Arauaren Ziurtagiria barritu dau. Horrek, lotura bako zainketa egiten dauan zentroa dala egiaztatzen dau; hau da, ez dauala erabilten lotura fisiko edo kimiko murriztailerik eta egoiliarrai eta senideai laguntza arloko alternatibak eskeintzen deusezala.

Libera-Care arauaren arabera, personen mobimentu askatasuna mugatzen daben elementu guztiak dira loturak: gurpildun aulki

eta oheetako uhalak, alboetako barrak eta abar. Urte luzez, sistema hori egoiliarrentzako babes-neurri lez erabili izan da, autolesinoak sailhesteko eta abar. Baina, loturak kentzean diranean, "personai duintasuna emoten jakie, eta hori funtsezko printzipioa da Arratiako Egoitzan" dinoe Arratiako Udalen Makomunitatetik.

Arratiako Egoitzak 2013an hasi eban aldaketa prozesua, eta 2015ean lortu eban ziurtagiria. Horretarako, ekipo barrietan inbertidu, lehendik egozan ekipoak egokitu, eta beharginak Libera-Care metodologian trebatu ditu.

## DIMA

**Egoitzako aitita-amamak eta eskolaumeak esperientziak konpartiduten dabez hilean bitan****Erredakzioa**

Ikasturte honetan Dimako eskolaumeak Arratiako egoitzara joaten dira laguntasuna emoteko eta persona nagusiakaz esperientziak konpartidutako Arratiako Udalen Mankomunitateko belaunaldi arteko programa baten barruan. Programea urrietan hasi zan. Ugara eskolako bigarren mailako 18 ume joaten dira egoitzara eguaztetenetan, hamabostean behin, Miren Bengoetxea tutoreagaz. Bigarren mailako umeak dira, 8-9 urtekoak, egoitzakoak edade horretakoak eskatu ebezalako. Eta egun horretan eurakaz egingo dituen ekintzak, egoiliarrak eurak prestatzen dabez.

**Hartu-emon aberasgarria**

Sano aberasgarriak dirala bisita horreek dino Miren Bengoetxeak eta egoiliarren eta umeen arteko hartu-emon oso polita sortu dala. "Bost edo sei adineko egoten dira mahaitxo baten, prestatu dabezana ekintzak umeakaz egiteko. Aurreikusita ez egoan arren, ume bakotxa

beti joaten da nagusi berarengana, hartu-emon personalak sortu dira eta". Umeak nagusien poza ikusten dabe eta poz hori umeentzat be aberasgarri dala dino irakasleak.

Erexi bardinekoa dira Mankomunitatekoak. "Belaunaldi arteko programak bi aldeentzako izaten ditue onurak. Alde batetik, nagusiai belaunaldi arteko interakzioetan parte hartzeak esperientzia atseginak emoten deutse eta euren autoestimua hobetzen dau, besteentzako baliagarriak dirala sentiduten dabe eta. Mobikortasuna eta interakzio soziala hobetzeko be balio deutse".

Umeen trebetasun sozialak hobetu, emoitza akademiko hobeak lortu eta arrisku sozialeko portarrek eukiteko arriskua txikiagoatzen ditu programeak, adituen arabera. "Inplikautako belaunaldi guztiak irabazten dabe zeozer". Izan be, nagusien "jarduera fisiko, kognitibo eta sozialak gora egiten dau, eta horrek hobetu egin leike zahartzen dabilen populazioaren osasuna, eta, aldi berean, gazteenen ikaskuntzea hobetuteko be balio dau".



Dimako eskolako ikasleak eta egoitzan dagozanak.

## ARTEA

**Kanposantuko ermitako teilatua konponduteko lanak egin ditue****Erredakzioa**

Udalak kanposantu barruan dagoan Santo Kristoren ermitearen teilatua konponduteko betearazteko agindua bialdu eutsan eleizeari 2016ko urrietan, eta honek konponketa lanak egiteari ekin eutsan martian. Ermitearen portikoa eta atzeko hegal-teilatua konpondu eta teila barriak ipini ditue. Lanon kostua 3.363 eurokoa izan da eta Arteako eleiztarrak ordaindu dabez "herri osoaren onurarako" Arratiako Eleizearen arabera.

Arteako kanposantuaren jaubea Eleizea da, baina hitzarmen bateari esker Udalak kudeatuten dau. Izan be, hilerri zerbitzua eskeintzea Udalarri jagoko Tokiko Araubidearen arabera, eta 2012ko abenduan, Arteako Udalak eta "Bilboko Diocesis Eleiza Katolikoak" hitzarmen bat sinatu eben Udalak kanposantuaren zerbitzua hartzeako. Hitzarmen honen bitartez, eleizeak bere kanposantua itxi eutsan Udalarri doban 30 urtetarako. Kanposantuko kudeaketea Udalaren kontura da. Baita mantenimentu eta konponketa lanak be.



Arteako kanposantuko ermitea.

**Bost urteko atzerapena**

Hitzarmenean mantenimentu eta konponketa guztiak Udalak egin behar dituala esan arren, betebeharrak horrek bost urteko atzerapena dauka laugarren klausulearen arabera. Udalak bere gain hartu beharreko betebeharrak da "ohizko eta ez ohizkoak diren mantenu eta konponketa guztiak egitea, ondatsuna egoera onean mantentzeko. Obligazio hau betetzeko, hitzarmen hau sinatzen denetik, bost (5) urte atzeratzen da. Ordurarte egin beharreko konponketak borondatezkoak izango dira, mantenukoak

izan ezik". Borondatezkoak izanda, "Udalak ez dauala borondate hori euki" azaldu deutso BEGITURI Igor Etxaniz Arteako alkateak.

**Mantenimentu lanak Udalak**

Eleizearen arabera, teilatuko "atzenengo urteotako mantenimentu ezagaitik" itoginak sortu dira, kalte "arinak" eginez portikoan eta ermita barruan. Arteako alkateak barriz, Udalak kanposantuko mantenimentu lanak egiten dituala dino eta ermitearen teilatua "egoera txarrean egoala hitzarmena sinatu zan orduko".

## ZEANURI

**Igor Gonzalez Sola ETAko presoak Zeanurin egon zan ama bisitetan**

Zeanuri.

**Erredakzioa**

Igor Gonzalezen ama gaisorik dago eta martiaren 25ean, Badajozeko espetxetik Zaballara eta handik Zeanurira ekarri eben, ama ikusi eian. Presoa ordubete t'ardi egon zan amagaz eskuburdin jarrita,

BEGITUREN iturrien arabera.

Gonzalezeri 40 lagun inguruk egin eutsian harrerea, "Euskal presoak, euskal herrira" banderakaz. Amagaz egoan bitartean, Ertzaintzaren hiru furgoneta eta hiru kotxe patruilaren bijilantziapean egon zan.

## IGORRE

**Goi-tensinoko linearen alegazioak erantzuna REE****Erredakzioa**

Igorreko Udalak martiaren 7an aurkeztutako igorretarren alegazioak erantzun deutse Red Electrica Española (REE). Baina erantzun horreetan, ez dira erantzuten aurkeztutako alegazio guztiak eta erantzuten diranetan be akatsak somatu ditu Igorreko Udalak, bai edukia baloretako orduan, baita data eta formetan be. Hori dala-eta, Udalak, barriro be, Red Electricari erantzun horreen kontrako argudioak heldu arazoko deusazala, azaldu deutso BEGITURI Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Beste alde batetik, Bizkaiko EH Bilduk be 450 alegazio aurkeztu eutsazan Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linearen proiektuari martiaren 24an Espainiako Gobernu Deleagarizan. Igorreko alkateak be egon zan bertan alegazioak aurkeztuten.

## ARTEA

# Erabilera lotutako proiektua Arteako Kultur Etxea barriztuteko

Arteako Kultur Etxea barriztatzeko dagoan aurrekontuaren erdia inguru eroango dau beretzeko sistema aldatuteak; 35.000 bat euro, eta 75.000 euro dagoz Kultur Etxea barriztu, egokitu eta hobetuteko.

### Erredakzioa

Hori dala eta, esku-hartzea ez da handia izango Katrin Izagirre arkitektuaren arabera. Irisgarriak izan daitezke egokituko dira komunak; danak ez, baina Kultur Etxea edonork erabili ahal daua bermatzeko beste bai. Proiektua, herritarrek emon gura deusien erabilera oinarrituta dago; horreek definitzeko hainbat bilera egin ondoren.

Umeak eta gazteak solairuz aldatuko dira. Ludotekeak argi naturala euki dagian, sototik beheko solairura pasauko da. Lehenengo pisuko Gazteen lokala, barriz, satora pasauko da. Holan sarrera independentea eukiko

dabe gazteak, eraikina zarratuta dagoanean be sartu eta urten egin ahal izateko eta ordutegi independentea eukiteko. Sotoko beste alderdian biltegi bat egongo da eta egokitutako komunak be egongo dira.

Beheko solairuan, egongo da ludotekea eta haren ondoan, harreran, etxoteko leku bat, harreratik altzariren batez edo bananduta. "Baina hau aldatu daiteke, ze hiru urte arteko umeak gurasoak egin behar dira eta baliteke, ludotekea handitu behar izatea" azaldu deutso BEGITURI Katrin Izagirrek. Erabilera anitzeko gela handia be solairu honetan egongo da.

Lehenengo solairuan, proiektu



honen arabera, alkarteentzako gelak eta ikasteko edo irakurteko gelak egongo dira. Ikasteko kontzentrazioa errezteko, gelaren bat edo batzuk insonorizatu gura ditue.

Bigarren solairua, Musika Eskoleak, eskulanetarako tailerrak, komunak, dutxa batek eta BEGITU aldizkariko bulegoak hartuko dabe.

## IGORRE

# Hogeta bederatzita talde eta artistaren kontzertu eskeiniko ditu Gazte Akelarreak

### Erredakzioa

Emai eta Aitzina gazte antolakundeak Gazte Akelarrea ekimena prestatu dabe apirilaren 13, 14 eta 15erako. Bertan talde antolakunde horreetako Euskal Herri osoko gazteak batuko dira hausnarketa politikoa egin eta ondo pasetako asmoz. Zornotzatik Igorrerako martxeagaz hasiko da eta Igorren egingo dan manifestazio eta ekitaldiak amaituko. Eskeintza politiko eta kultural handia izango dabe: berbaldiak, mahai-inguruak eta tailerrak alde batetik, eta kontzertuak eta txapelketak, bestetik.

Alde politikoari jagokonean, gai ugari landuko dabez gazteak: herri poderetza prozesu iraultzailean, ekonomia feministea, lan prekarioen kontrako burrukak, erre-fujiaduak, eta abar. Gaztetxean, Kultur Etxean eta eskolan landuko dira gai horreek.

Kirol txapelketa bi egongo dira: eskalada eta eskupeletakoak, hain zuzen. Eta herri kirolak, zunbak, tirolinak, giza futbolinak eta *high line* erakustaldiak osotuko dabe kirol eskeintzea. Honeek, herrian, boul-



derrean, plazan eta frontoian ikusi edo praktikatu ahal izango dira.

Eskeintza kulturalari jagokonean, kontzertu jaialdia aitatu behar da. Akeita tabernan, Gaztetxean eta Sound System Gunean 29 talde eta artistaren kontzertu eskeiniko ditue apirilaren 14 eta 15ean. Egunotan, Silvio eta Rodriguez, Urko Milagro, La jodedera, Lamia, Mobydick, Jon Basaguren, Pecozza United, Pelax, Wi-

llis Drummond, Bad Sound System, Eskean Kristö, Soziedad Alkoholika, Mafalda, Gatillazo, Lagrimas de Sangre, Gatibu, Zirkirik bez, Huntza, Koban, Riot propaganda, Aiaraldeko Sound System, Mandinka Warrior (Gambia), Sista Kata, Selektia Step, Euskal Dub Etxea, Aneuria, Gor-ka Suaia, Mad muasel eta Antxon Sagardui izango dira Igorren Gazte Akelarreaki musikea ipinten.

## AREATZA/ZEANURI

# Gaure Eskuetan alkarteak herri galdeketearen arteko programazinoa aurkeztu dau

Martian 24an, Gure Esku Dago taldeak Zeanurin, Gaure Eskuetan Erabakitzeko Eskubidearen Aldeko Kultur Elkarteak, eta herri galdeketa arteko programazinoa aurkeztu eban.



Gaure Eskuetan alkarteak.

### Erredakzioa

Egun horretan bertan, Areatzan zemendiaren 5ean galdeketea egingo alkarteak sortutea ebatzi eben.

Zeanurin, maiatzaren 7an izango da herri galdeketea eta galdeketa horretan 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahal izango dabe. Galdeketea egin ahal izateko 271 sinadura batu dabez alkarteak; hau da, herritarren %25,64renak, alkartearen datuen arabera. Itauna, zezeilaren 15ean adostu eben eta hauxe izan zan: "Gura dozu Euskal herri independente bateko herritarra izan?"

Maiatzaren 7an ahalik eta jente gehienak emon dagian botoa, hainbat ekitaldi egingo ditue herrian. Holan, apirilaren 8an, transiziotik hona Zeanuriko udaletxean egon diran zinegotzi guztiak batuko dira erabakitzeko eskubidearen aldeko adierazpen bat irakurteko. Apirilaren 26 eta 27an, herria galdeketearako "jantzi" egingo dabe Gure Esku Dago logoakaz. Hurrengo egunean, herriko gazteak jaialdia egingo dabe.

Maiatzaren 7a baino lehenago be botoa emon ahal izango da: apirilaren 24tik 28ra edo maiatzaren 1etik 5era, arrastiko 17:00etatik 19:00etara bitartean, San isidro kaleko 11 zenbakian.

### Areatzan zemendiaren 5ean izango da galdeketea

Areatzako Gure Esku lan taldeak,

atzen hiru urteetako errepaso egin ondoren eta prozesu guztian parte hartzea positiboa izan dala ikusita, Areatzan be herri galdeketea aurten egitea ebatzi dau.

Martian 24ko batzarrean Areatzan herri galdeketea zemendiaren 5ean egiteko lantaldearen proposamena onartu zan. Galdeketea antolatuteko alkarteak sortu behar da eta batzarrera hurreratu 30 persona inguruk emon eben izena alkarteak sortzeako. Dagigun Areatza Kultur Elkarteak deituko da alkarteak.

Galdeketea egingo zemendiaren 5a aukeratu zan egun horrek sinbolismo handia daukalako. "Alde batetik, Gure Eskuren ikurra 5 atzamar diralako; beste batetik 1933ko zemendiaren 5a, andrak erreferendun baten lehen aldiz bozkatu ahal izan eben eguna izan zalako, Autonomia Estatutua bozkatu zan; eta azkenik zemendian beste galdeketa olatu handi bat etorriko dalako, eta horren indarra aprobetxatu gura dogulako geurea egingo" dino Sara Gutierrez Areatzako Gure Eskuko lan taldekoak.

Holan, apirlean, Dagigun Areatza alkarteak erregistrauko dabe; aprila eta maiatzean, sinadura bilketea egingo dabe; bagilean itauna adosteko batzarra izango da; garagarri edo abuztuan, finantzazio kanpaina; urrietan informazio kanpaina eta zemendiaren 5ean herri galdeketea.

## XX. KORRIKA

# Arratia zeharkatzen kilometro "Batzuk" egingo ditu Korrikak: Berrogeta hamaika

Aprilaren 6 eta 7 arteko gauerdian sartuko da Korrika Arratian, eta goizaldeko lau t'erdia aldean amaituko dau bere ibilbidea gure eskualdean. Lau ordu horreetan, 51 kilometro egin eta 8 herritik pasauko da. Lekukoa 64 aldiz aldatuko da eskuz, Arratiako alkarte eta talde askok eta enpresa batzuk be erosi ditue kilometroak eta. Korrika amaierara Iruñeara joateko autobusa ipiniko dau apirilaren 9an Arratiako AEK-k. Bediatik urtengo da 09:00etan eta izena Igorreko Kubulu Euskaltegian emon behar da alde z aurretik. Ondoko koadroan, kilometro bakoitzean zein taldek eroango dauan lekukoa ikusi daiteke.

Kilometroa	Eroalea	Herria	Non	Ordua	Kilometroa	Eroalea	Herria	Non	Ordua
1905	Arratiako EAJ	Bedia	Carrusel del mueblen	00:36:35	1937	Peña Beñat Ebebarria	Areatza	Areatzako kartelean	02:19:11
1906A	Arratiko Zekorak Rugby Taldea	Bedia	"Heldu" muralen	00:40:11	1938	Areatzako Udala	Areatza	Botikan	02:22:26
1906B	Bediako EH Bildu	Bedia	Astizeko errotondan	00:41:30	1939	Areatzako GE+AKKB	Areatza	Eskolan	02:25:41
1907	Bediako Udala	Bedia	Vitoria-Gasteiz seinalean	00:43:11	1940A	Areatzako EH Bildu	Areatza	Karpoko baseri ostean	02:28:56
1908	Construcciones EKIN	Bedia	Jauregia. Errotonda seinalean	00:46:11	1940B	Peña Gorbeako Gurutzea	Areatza	Ugunaga auzoko sarreran	02:30:45
1909	Lemoako Sortu	Lemoa	Mendietako autobus geltokian	00:49:11	1941	Zeanuriko Sortu eta EH Bildu	Zeanuri	Ugunaganen	02:32:11
1910	Itu Lemoa eta Opel Ibaigane	Lemoa	Pozuetako pabilioietan	00:52:11	1942A	Arratia Motor Taldea	Zeanuri	Zulaibar baino lehenago	02:34:47
1911A	Zementoseko LAB	Lemoa	Gasolindegian	00:55:11	1942B	Eguzkiola	Zeanuri	Zulaibar ostean	02:38:00
1911B	Etberat	Lemoa	Plaza gorrian	00:56:30	1943A	Zeanuriko Eskolea eta GE	Zeanuri	Saihesbideko zubi azpian	02:41:17
1912	Lemoako Gaztetxea	Lemoa	Gaztetxe atzean	00:58:11	1943B	Zeanuriko Udala	Zeanuri	Otzerimendi seinalean	02:44:45
1913A	Lemoako Eskolea	Lemoa	Torredun etxean	01:04:11	1944	Dimako Eskolea eta GE	Zeanuri	30 seinalean	02:47:47
1913B	Durundi Bari Dantza Taldea	Lemoa	Zubiko errotondearen ostean	01:05:55	1945A	Olazabal	Zeanuri	Altzutan	02:54:17
1914A	Ganzabal Mendi Taldea	Lemoa	Lemoako eskolan	01:07:11	1945B	Artaun	Zeanuri	Kontuz eskola seinalean	
1914B	Lemoako Korala	Lemoa	Zubiziku inguruan	01:08:11	1946A	Indusi	Zeanuri	33 km.ko mugarran	03:04:02
1915	Lemoako Udala	Lemoa	Udaletxea baino lehenago	01:10:11	1946B	Andraizea	Zeanuri	Patronkorta seinalean	03:09:00
1916A	Lemoako Esku Pelota Elkartea	Lemoa	Txiriboketan	01:13:11	1947A	Txumulutxueta Pelota Elkartea	Zeanuri	Beretxikorta aurretik	03:13:47
1916B	Lemoako Futbol Taldea	Lemoa	Lemoako urtekeran	01:16:11	1947B	Dimetaleroak	Zeanuri	Beretxikorta pasatuta	03:17:12
1917A	Zaztaparrak Asti Taldea	Lemoa	Txitotegi kartelean	01:19:11	1947C	Keixa Parapente Taldea	Zeanuri	Errail bikotxa hasita	03:20:00
1917B	Igitie	Lemoa	Etxe zuria baino lehenago	01:20:55	1948A	Jentilzubi	Zeanuri	30 mugaria baino lehenago	03:23:32
1918	Araluce	Igorre	Igorre kartelean	01:22:11	1948B	Dimako EH Bildu	Zeanuri	Informazino seinalean	03:28:32
1919	Batz	Igorre	Saihesbide aurrean	01:25:11	1949A	Luis Prieto Lagun Taldea	Zeanuri	28 km.ko mugarran	03:33:17
1920	Igorreko Institutuko GE	Igorre	Garakoiko autobus geltokian	01:28:11	1949B	Dimako Bertso Eskolea	Zeanuri	80ko seinalean	03:38:02
1921	Igorreko Institutua	Igorre	Errugbi zelaian	01:31:11	1950A	Gazteberri Dantza Taldea	Zeanuri	Otxandio seinalean	03:43:02
1922A	Arantzarte Dantza Taldea	Igorre	Igorreko sarreran	01:34:11	1950B	Abizarie Euskara Taldea	Zeanuri	Otxandiorako kurutzebidean	03:46:00
1922B	EALE	Igorre	Errotondan	01:35:55	1951	Dimako Udala	Zeanuri	Ez aurreratu seinalean	03:49:32
1923	Igorreko Eskolea	Igorre	Akesolo harategian	01:37:11	1952	Ubideko herria	Ubide	Ezkerretarako baserrian	03:55:02
1924	Igorreko EH Bildu	Igorre	Seguros Atubxan	01:40:11	1953	Ubideko herria	Ubide	Ubidearen sarreran	04:02:02
1925	Igorreko Jubiladuak	Igorre	AEK. Kubulu euskaltegian	01:43:11	1954A	Zertu Kultur Elkartea	Ubide	Arabako muga kartelean	04:08:00
1926	Igorreko Udala	Igorre	Autobus geltokian	01:46:11	1954B	Suzien Mendi Kluba	Ubide	Arbola landazino barrian	04:12:00
1927	Luis Iruarizaga Abesbatza	Igorre	Maite ileapaindegian	01:49:11	1955	Errota	Ubide	Landazino barritik 500 m.ra	04:16:00
1928	Arantzazuko Udala	Arantzazu	Idurieta kartelean	01:52:11	1956	Aratiako AEK	Ubide	80 seinalean	04:20:00
1929A	AEPGA	Arantzazu	Errotondan	01:55:11					
1929B	Kiñu Gaztetxea	Arantzazu	Bildosolan						
1930A	Arantzazuko EH Bildu	Arantzazu	Katikena kartelean	01:58:11					
1930B	Arginatx Mendi Taldea	Arantzazu	Karteletik 250 metrora	02:00:00					
1931	Arratiako Bertso Eskolea	Arantzazu	Harestian	02:01:11					
1932A	Arteako Sortu	Artea	Gasolindegi seinalean	02:03:35					
1932B	Arratiako Musika Eskolea	Artea	N-240 mugari aurrean	02:04:55					
1933	Aldatuz Plataformea	Artea	Areatza-Gasteiz kartelean	02:06:11					
1934	Arteako Udala	Artea	Gaztetxean	02:09:26					
1935	Arteako Eskolea	Artea	Etxe urdina	02:12:41					
1936	Gorosti	Artea	Ugarteko azken baserrian	02:15:56					

\* AEK-k Korrikara bitartean aldaketak egon leitezazala ohartu arazoten dau.



**agoa** hagi klinika  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa Odontologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igorre - Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Idazgela Zentiloa 101  
R.P.S. 31/06

**Kili~Kili**  
Arropa eta Puzkiltzura  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 63 81

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazinoak  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnua. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



## Arratia Korrikari etxoten

### Erredakzinoa

Aprilaren 6 eta 7 arteko gauerdian sartuko da Korrika Arratian, eta goizeko laurak aldean amaituko dau bere ibilbidea gure eskualdean. Umeentzat eta hurrengo egunean behar egin behar daben askorentzat desorduek dira horreek. Baina Korrika euskaltzale guztien jaia da, baita umeena be, eta zelan edo halan danak hartu daiekie parte.

Horregaitik Korrika Txikiak antolatu dira egun argitan apirilaren 6rako eta tailerrak eta beste ekitaldi asko umeentzat batez be. Herri batzuetan, gauberako be antolatu ditue ekintzak, Korrikari jai giroan etxoteko.

### Korrikaren zain

Bedian, arrastiko 18:30ean antolatu dabe Korrika Txiki. Aurretik, 17:00etatik 18:30era tailerrak egongo dira. Korrika Txikiaren ostean, 19:00etan, jolasak eta 19:30ean, talo jana. Bediatik sartuko da Korrika Arratiara 00:36an.

Lemoan, Zirko jaia ospatuko dabe eskolako patioan 17:00etatik aurrera. Korrika 0:49an pasauko dala heritik aurreikusten dau AEK-k.

Igorren, 18:00etan hasiko dira herria Korrikarako girotzen. Ordu horretan, Rugby taberna aurrean, Korrika argazkiak, kantuek eta pinxoak egongo dira, eta 21:00etan, erromeria egongo da Batek daki taldeagaz Kultur Etxe aurreko plazan. Korrika 01:22an pasauko da Igorretik.

Arantzazuko Kultur Batzordeak, peto tailerra antolatu dau 17:30ean. Ondoren, 18:00etan, umeak Korrika Txiki egingo dabe eta indarrak barritzatzeko txokolatea hartuko dabe 18:30ean. Heritik pasetan danean Korrikan parte hartu edo ikusi gura dabenentzat, Korrikari etxoteko beste txokolatada bat egongo da 00:30ean. Aurreikusitako ordutegia beteten bada Arantzazutik 01:52an pasauko da Korrika.

Artean, eguerdiko 12:00etan izango da Korrika Txiki. Bertan parte hartuko dabe Arteako eskolaume eta irakasleak eta gura daben herritar guztiak. Izan be, danak ezingo dira goizaldeko 02:03an kalean egon, eta Korrika Txiki Korrikan parte hartzeako aukerea emongo deutse gauean euskarearen alde galapan egin ezin dabena.

Areatzan 18:00etan hasiko dira ospakizunak. Izan be, Zaztaparrak taldeak umeentzako jolasak antolatu ditu plazan ordu horretan. 19:30ean Korrika herrikoian eskoleak, herriko alkarteak eta eragileak hartuko dabe parte. Ondoren, 20:30ean, Kantu jirea egingo dabe billaroztarrak eta 22:00etan, jatekoa egongo da plazara hurrelertzen diran guztientzat. Ostean, erromeria Gaztetxean. Korrika 02:19ak aldera pasauko da

eta ostean, txokolatea egongo da Gaztetxean, gauean Korrikan parte hartzean edo txalotzen egon diran guztientzat.

Zeanurin be arrastian hasiko dira eguna girotzeko ekintzak. Holan, umeentzako tailerrak egongo dira 18:30ean, eta 20:30etik aurrera, jaia. Korrikari etxoteko ekintzak be antolatu ditue zeanuriztarrak. 20:30ean, gura daben guztientzat, ume, gazte, zein helduentzat, Rally-poteoa egongo da Txoko Sagarnatik hasita. 22:00etan barriz, afaia, eta afaalostean, Korrika argazki eta Korrika bideoen emonaldia egongo da. Korrika argazkien albuma, martiaren 27tik 31ra ludotekan egin eta guraso alkartera bialdutako argazkiak osatu dabe. Bideoak euskal kantu bategaz grabatu eta gurasoelkartera@zeanurikoeskola.com helbidera bialdu daitezke apirilaren 3ra arte. Emonaldia ostean, kantaldia egongo da Oier Aslagaz. Korrika 02:32an sartuko da herrian eta 02:00etan abiatuko dira zeanuriztarrak herriko kilometroetara Katalin eta Leire trikitilariak lagunduta. Afaiarako izena jubiladuen tabernan emon behar da apirilaren 3a baino lehen.

Ubiden, Korrika Txiki eta Korrikaren inguruko jaia apirilaren 1ean egingo dabe. Zapatu horretan, ubideztarrak bazkaria egingo dabe Jubiladuen Etxean eta 18:30ean, Korrika Txiki eta herriko produktuak dituan otzara baten zozketea egingo da. Apirilaren 7ko goizaldeko 03:55ean sartuko da Korrika Ubiden. Korrika pasau ostean txokolatada egongo da korrikalari zein ordu txiki horretan Korrikari harrerea egin deusien guztientzat.

Dimatik ez da pasauko Korrika baina apirilaren 6an Korrika Txiki antolatu dabe eskolakoak. Holan, 11:00etan ikasle eta irakasleak eskolatik urten eta heritik ibilbidea egingo dabe. 11:30ean frontoian batuko dira ekitalditxo bat egiteko, eta ekitaldiaren ostean, LH5, eta LH6koak galapan jarraitu eta Igorrerantz abiatuko dira. 12:30ean, Igorreko eskolatik LH5 eta LH6ko ikasleak Dimarantz urtengo dira eta Dimako ikasleak bat egingo dabe. Danak batera Igorreko Kultur Etxera joango dira eta bazkaldu ostean ekitalditxo bat egingo dabe.

Heretik pasau ez arren, Dimak parte hartuko dau Korrikan. Dimako Udalak eta Dimako zenbait alkartek kilometroak erosi ditue-eta. 1.944 kilometrotik 1.951 kilometrorra, Dimako Eskolea, Guraso Elkarte, Olazabal, Artaun, Indusi, Andraizeak, Txumluxueta Pelota Eskoleak, Dimetaleroak, Keixa Parapente Taldea, Jentilzubi, EH Bildu Dima, Luis Prieto Lagun Taldea, Dimako Bertso Eskolea, Gazteberri Dantza Taldea, Abizarie eta Dimako Udalak erango dabe 20. Korrikaren lekukoa.



## XAKEA

## Udabarriko txapelketa Areatzan

Iban Gortazar

Areatzan lehenengo biderrez antolatu da Udabarriko Xake Txapelketa, Areatza Xake Bizi alkarteak antolatuta. Hamasei lagunek hartuten dabe parte; Areatza, Igorre eta Zeanurikoak, hain zuzen be.

Liga sistema bidez jokatuten da; hau da, danak danen kontra, astean partida bana jokatuta eta bagilera arte iraungo dau. Ekimen hau astero ume eta gaztekoentzat antolatzen diran xake ikastaroen osagarria da. Baina txapelketeagaz, kalean xakea ikustea bultzatu gura da. Gero, udara begira, jaietan xake egun bat antolatutea da Areatza Xake Bizi alkartearen hurrengo apustua.

## BOLA JOKOA

## Arratiako lau talde Txapelketa Komarkalean

Maite Arrizabalaga

Bola Joko Lehiaketa Komarkala martiaren 4ean hasi zan. Dagoeneko 4 tirada egin dira, azkena, martiaren 25ean. Belatxiketa alkarteak izan zan taldeka tiradako lehenengoa eta bakarka, San Antonio Atzezuak taldeko Josu Elorza. Aurten Arratiako lau talde dagoz, Lemoa, sailkapen orokorrean 4. postuan doana, Elorriaga (Lemoa) seigarrena, Oba (Dima) zazpigarrena eta azkenengo postuan San Kristobal (Igorre). Momentu honetan aurrean doan taldea Gisetza da eta bakarkakoan, Josu Elorza.

Lehen arratiarra, Betiko Belatxiketan botaten dauan Asier Petralanda dimoztarra da laugarren postuan. Hurrengo saioa, apirilaren 1ean da Lemoako Elorriaga auzoan.

## APUSTUA

## Txikonek eta Larrañagak apustua berbatu dabe



Alex Txikon.

Erredakzinoa

Everestetik bueltan beste erronka bat dauka buruan Alex Txikon mendizale lemoaztarra. Herri kirol apustua izango da oraingoan. Izan be, Alex Txikonek eta Mikel Larrañaga aizkolari azpeitiarrak harrijasotze, azkora eta korrika apustua egin dabe, garagarriaren 1erako. 6.000 euro ipini ditue jokoan.

Apustua Azpeitiko zezen plazan jokatuko da arrastiko 19:00etan. Kirolari biak harria 20 aldiz jaso beharko dabe; Txikonek hamar kanaerdiko ebagi beharko ditu eta Larrañagak hamabi, eta 7,5 km. egingo dabez galapan. Ebagi beharreko enborrak Txikonek ipiniko ditu, baina, apustuaren egunean bien artean ebatziko dabe bakotzak ze enbor ebagiko dauzan.

Printzipioz, Txikonek lasterketa proba dauka bere alde eta Larrañagak azkorea, baina nor dan gehiago apustuaren egunean ikusi beharko da.

Martiaren 29an lotu eben apustua eta akordiora heltzeako ordubete baino gehiago behar izan eben.

## FUTBOLA

## Gatx dauka Arratiak Bigarren Mailan segiduteko

Erredakzinoa

Hiru partidu baino ez diranean falta, Arratiak gatx dauka Bigarren Maila Nacionalean jarraituteko. Sailkapenean azken postuan dago eta ez jeisteko, hiru partiduetatik gitxienez bi irabazi eta besteen emoitzak Arratiari mesede egitea beharko leukie Bigarren Mailari eusteko.

Atzenengo partidu, martiaren 26koa, irabazi eben etxean, 1-0 Añorgaren kontra. Baina aurrekoa ez irabazteak, martiaren 19koa,



Arratiaren jarraitzaileak.

ekarri eutsan Arratiari egoera larria. Iruñean jokatuta zan partidu

## TXIRRINDULARITZEA

## Espainiako Kopako lider dago Oskar Garro igorreztarra

Erredakzinoa

Txirrindularitza egokituko Espainiako Kopako lehenengo lasterketa jokatuta zan martiaren 26an Tomelloson (Ciudad Real) eta MC2 kategorian Oscar Garro igorreztarrrak jantzi eban mailota, lasterketa sprint-ean irabazi eta gero.

Modalidade guztiak jokatuten dira Kopan, handbike, triziklo eta bizikleta, eta 100 partaide baino

gehiago dira guztira. Orain, liderraren elastikoa defendidutea toketan jako igorrezkoari.



**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu  
Fisioterapia  
**Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1 Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

**ZEKUTZE**  
JATEKETA

Sabino Arana, 34  
48140 IKORRE - Bizkaia  
zikutzekutze@hotmail.com

Tel.: 94 631 52 83

**Beer & Edariak s.l.**

HEINEKEN ★ SOLARES

Polig. Mendaketa, s/n. 48530 LEZIOA, Bizkaia  
Tel. 600 482 850 / fax. 600 200 717

Arrebasio larri lasterketarako

**Gure**  
ikastetxeak  
Euzkalduna  
kalidadezkoa  
herrikoia

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Artea

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



## MENDIA

### III. Kolazinoko Mendi Egunean hiru lasterketa eta mendi martxea

#### Erredakzioa

Kolazinoko Mendi Egunean, Mendi Lasterketea, Mendi Martxea eta BTT Martxako probak jokatu dira Mandoia eta bere inguruak erakusten dabean ibilbide ederretan zehar apirilaren 8an, Tiritu Kultur Elkartek antolatuta. Mendiaren jaiak egun osoa hartuko dau eta arrastian erromeria be egongo da Jokaldi taldeagaz.

Hiru lasterketa eta mendi martxa bat egongo dira. Mendi Martxea izango da abiatuko dan lehena. Partaideak 08:00retan urtengo dira Bediako plazatik, 20

km.ko distantzia eta 1.000 m.ko desnibel positiboa daukan ibilbidea egiteko. Ordubete beranduago urtengo dira txirindulariak. Honeek 1.300 m.ko desnibeldun 35 km. egin izan beharko dabez mendiko bizikleta gainean. Ondoren, 10:00etan, Mendi Lasterketea abiatuko da. Korrikalariak 24 km. eta 1.500 m.ko desnibel positiboko ibilbidea daukie. Azkenik, afizinoa eta harrobia sortzeako, Junior/Kadete Mendi Lasterketearen txandea izango da. Gazteak 10:30ean abiatuko dira plazatik 15 km. eta 800 m.ko desnibela daukan lasterketea egiteko.

Antolakuntzak, aparketako beharko dan denporea kontuan izateko eta sasoiz helduteko deia egin dau. Umeak olgetan egiteko puzgarriak eta tailerrak egongo dira plazan probak irauten dabean bitartean.

Probak hasi aurretik, dorsalen banaketea egongo da, eta online izena emon ez dabeneztat izena emoteko aukerea. Izen emote bakoetako euro bat Abepi Bizkaiko Epilepsiaren kontrako alkartearentzat izango da.

#### Ordutegia:

**06:30etik 07:45era**, Martxarako dorsalen banaketea eta izena emoteko aukerea frontoian.

**06:30etik 08:45era**, BTT Lasterketarako dorsalen banaketea eta izena emoteko aukerea frontoian.

**06:30etik 09:45era**, Mendi Lasterketarako dorsalen banaketea eta izena emoteko aukerea frontoian.

**06:30etik 09:45era**, Junior/Kadete Lasterketarako dorsalen banaketea eta izena emoteko aukerea frontoian.

**08:00retan**, Martxearen hasiketea plazan.

**09:00etan**, BTT Lasterketearen hasiketea plazan.

**10:00etan**, Mendi Lasterketea-

ren hasiketea plazan.

**10:30ean**, Junior/Kadete Lasterketaren hasiketea plazan.

**13:30ean**, sari banaketea plazan.

**14:00etan**, bazkaria frontoian.

**15:00etan**, proba guztien amaierarekin plazan.

**16:00etan**, erromeria Jokaldi taldeagaz.



# begitu

arratia ubide zeberio

## ez da debalde



**Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu dabean berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!**

## LITERATUREA

## Dima eta Igorreko liburutegiak, Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainara atxikitu dira

## Erredakzioa

Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoaren 11. edizioa, martiaren 20an hasi zan eta maiatzaren 31 bitartean gauzatuko da 52 herritan, Dima eta Igorre tartean, Euskaltzaleen Topaguneako alkarteak (Abizarie), Dima eta Igorreko Udalak, liburutegiak eta liburu dendak alkarlanean antolatuta. Aurten 52 herritan ipiniko da martxan, inozko kopururik handiena, eta lehenengo aldiz egingo da uriburua bitan, Iruñea eta Gasteizen. Holan, eskeintzea aurreko urteetan baino 450.000 persona gehiagorengana helduko da.

Egitasmoak liburuak erosteko abantaila ekonomikoak emoten ditu, eta liburuak opari bihurtzera konbidatzen dau. Herritarak euskerazko liburuak irakurtera animau gura ditu, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuz eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera sustatuz.

## Hiru pausu

Izenak berak adierazoten dauan moduan hiru pausu emon behar dira kanpainan parte hartzeako. Lehenengo pausua irakurtea da, euskeraz irakurtea. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan, eta euskerazko edozein liburu maileguan eskatu behar da. Bigarrena, gozatu; hau da, liburuak irakurri, liburutegira itzuli, eta fitxa errez bat bete behar da: zein izan dan irakurritako liburuak eta eretxia

emonaz. Fitxa hori beteta, liburuazainak erosteta-txekea emongo deutso irakurleari Igorreko Orri eta Marrak liburutegietan beste liburu bat %35eko deskontuagaz erosteko. Eta hirugarren pausua liburuak oparitzea da, beste bateri edo norbere buruari.

Gainera, aprila eta maiatza amaieran, liburutegi bakoitzean 30 euroko txeki baten zozketea egingo da hile horretan irakurle fitxa bete dabenen artean. Txeki berezi horrek, besteak legez, euskerazko liburuak erosteko aukera emongo dau.

Ekimen honen bueltan beste-lako literatur jarduerak be antolatuko dira: idazleakaz barriketaldiak, liburu azokak, irakurketa musikatua eta abar. Egitasmoak honako argitaletxeen laguntza izaten dau: Alberdania, Erein, Elkar, Ibaizabal, Pamiela, Txalaparta eta Susa.

Kanpainak eragin positiboa izaten dau liburutegien erabilera zein euskerazko liburuaren salmentan.



## IKUSKIZUNA

## Marraski bizidunen gaineko musikala egingo dabe Arratiako Musika Eskolako umeak

## Erredakzioa

Apirilaren 1ean, Arratiako Musika Eskolako umeak *Cartoons* izeneko Ipuin Musikatua antzetzuko dabe Igorreko Lasarte Aretoan. Saio bi izango dira, 17:00etan bata eta 19:00etan bestea; eta bakoitzean 60 edo 70 ume inguruk hartuko dabe parte.

Lehenengoa saioan, Dima, Zeberio, Artea eta Areatzako umeak antzetzuko dabe ipuina, eta bigarrenean, Bedia, Lemoa, Igorre eta Arantzazukoak Ipuin Musikatuaren musika irakasleen orkestrak joko dau Jesus Mari Bilbaoren zuzendaritzapean eta

koru biren laguntasuna eukiko dau: Arratiako Musika Eskolako Kirikinusi eta Amorebieta-Etxanoko Kantalai umeen koruena, hain zuzen be. Ipuina Ibon Izak sortu dau eta narratzailea June Iruarizaga izango da.

## Marraski bizidunen musika

Urrietan hasten dira Musika Eskolako irakasleak Ipuin Musikatua antolatuten. Behin ipuina eskuratuta, lehenengo lana letrak eta partiturak moldatzea da. *Cartoons* ikuskizunerako marraski bizidunetako 13 kantu atera ditue: "Dorremiren magia", "Dragoi bola" eta "Harriketarrik", tartean.

## DISKOA

## Vinagre de modernak lehen diskoa atera dau



## Erredakzioa

Vinagre de moderna punk-rock taldeak bere lehen diskoa kaleratu dau. Taldearen izena daukan disko honetan, eurak sortutako

9 kantu batu ditue arratiarrak. Bilboko Rekalde auzoan Priscilla Band taldearen estudioan grabatuta dago, eta libretoaren diseinua Torontile serigrafiak egin dau. Arratiako hainbat tabernatan eta DDT Banaketa etxean dago salgai 5 euroko prezioan.

Amaia Quesadak (gitarra), Maitane Iruarizagak (bajua), Ana Etxanizek (bateria) eta Izaskun Urbanetak (abotsa) osotuten dabe taldea. Orain urte bi sortu zan eta 16 kantu ditue. "Gehien gustetan jakuzan 9 kantua jaso doguz diskoan. Bederatzi baino ez doguz atera, zerbaist ordaindu behar zalako eta gehiagorako dirurik ez geunkalako" azaldu deutso

## ZERTU KULTUR ELKARTEA

## "begitu be" besoko islatzailea

## Alvaro Rabelli

Ez da lehenengoa BEGITU Aldizkariaren irudia jentartean agertzearen Zertu alkarteak holango marketing materiala plazaratzen dauana. Orain arte boltsak eta elastikoak izan dira, gehien bat, BEGITUren irudia eroan izan dabena. Oingoan, baina, besoko islatzaileak dira, "begitu be" leloa eroango dabena. Igaztik, Zertu alkartearen zuzendaritza barriz za-

netik, behar-beharrezko ikusi da material barria plazaratzen hastea (argitalpenak eta beste), eta, halakoez gain, BEGITUren aldeko propaganda zabaltzen lagunduko dabena ekintzak be egitea. Beraz, hemendik gixira Begitu-lagun eta aldizkari ohiko kolaboratzaileak hasiko dira etxean bertan besokoa jasoten. Harpidedun ez diranentzat, salgai ipiniko dira euro bitan. Besokoa, argi islatzailea dan lez, beren-beregikoa da

BEGITURI Izaskun Urbanetak. Izan be, lehenengo diskoa autoedizioaren bidez kaleratu dabe.

Kantuen artean, badago bat Los Punsetes taldearen kanta baten bersinoa dana, "Tomaki" izenekoa, hain zuzen be. Hori bai "guztiz desitxuratuta". Kantu guztien letrak aldarrikapenen bat dakarre, "toke ironiko batez". "Bizimodua nahiko serioa da eta guk hau ondo pasetako egiten dogu" dino Urbanetak. Eta Vinagre de modernaren kontzertuak sano dibertigarriak dirala gehitu dau.

## Hurrengo kontzertuak

Diskoaren aurkezpen moduan planteata egon ez arren, diskoko kantak be kantauko ditue hurrengo kontzertuetan. Hurrengo zitak apirilaren 7an Donostian, eta 28an Bilboko Hika Ateneoan daukiez. Atzenengo hau, Medicus Mundiren "Osasun eskubidea Guatemalan" kanpainaren barruan dago, 20:30etik aurrera.

kaminoetan kirola egin, edo beste barik, oinez eta ibiltan dan edozein adinetako jentearentzat, txirindulari, korrikalari, ibiltari eta mendizaleentzat. BEGITUren aldeko marketing erabilgarria inondik be. Eta leloan berba joko "be begitu" ingelesa izan leitekena, eta "begitu be" euskera, nor bere gustura, baina beti BEGITU.



## BERTSOLARITZEA

## Hurrengo faserako sailkatzen saiatuko dira Arratiako talde biak

## Erredakzioa

Bizkaiko Taldekakoa Bertsolari Txapelketan, Arratiako talde biak beste talde binagaz neurtuko dira apirilaren 2an, hurrengo fasera sailkatzeko. Bikotxgane taldeak etxean jokatu dau; Bagenki-k, barriz, Larrabetzun.

Begoñe Olabariak, Belate Olabariak, Illart Gumuziok, Iñaki Iturriotz-ek, Juanjo Respaldizak eta Karmelo Uriartek osotuten dabe Bikotxgane taldea. Hau, Lea-Artibaiko Ipizar eta Mungialdeko Taketa Lez taldeen kontra neurtuko da Igorren. 12:00etan, Herriko Tabernan hasiko dira; 12:37an

jarraituko dabe Rugby Tabernan eta 13:22an, Gau Lora Akeitegira joango dira. Ondoren bazkaria eta errebantzea egingo dabez.

Arratiako beste taldea, Bagenki izenekoa Ibon Izak, Igor Menikak, Irati Astondoak, Jon Urik, Lur Ziarrustak eta Zefe Ziarrustak osotuten dabe. Honeek, Algortako Gora Tangora eta Larrabetzuko Itallen taldeen kontra neurtuko dira Larrabetzun, 17:30ean, Anguleri aurrean hasita.

## Hiru fase

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak abiatutako txapelketa hau hiru fasetan jokatu da. Kanporaketa bakoitzean talde batek bakarrik



egingo dau aurrera. Saio bakoitza puntuetako hiru taldeetako epaileen balorazioa gehi publikoaren balorazioa hartuko dira kontuan eta hiru taldeetatik, ze taldek egingo dauan aurrera ebatzi beharko dabe danen artean. Bigarren fasea apirilaren 24an hasiko da, eta bigarrenean 3an jokatu da finala.

## LABURBIRA

# Elemakarrak Igorre, Paris, Londres eta New York-en



Hileta filmako fotograma bat.

### Erredakzioa

Laburbira euskerazko film laburren zirkuituak aurten aukeratu dituan zortzi filmak apirilaren 7an, 20:00etan Igorreko Kultur Etxean ikusi ahal izango dira. Arratian ikusteko bigarren aukerea eta azkena izango da, martiaren 24an Areatzan proiektatu ziran-eta. Filmen artean, Diman egindako *Elemakarrak* dago.

Filmak, Oier Fuentesen *Azken saskia*; Ibon Izaren, *Elemakarrak*; Eki Pagoagaren *Jalgi*; Kepa Sojoren *Hileta*; Alejandro Diaz Castañoren *Ihesa*; Begoña Vicariok koordinatutako Ageda kopla taldearen *Beti bezperako koplak*, Uda films-en *280°* eta iragarki selektino bat izango dira.

Euskaltzaleen Topaguneak antolatutuen dauan Laburbira zirkuituak 32 herrik osotuten dabe,

Euskal Herrikoak eta Euskal Herri-rik kanpokoak. Holan, New York, Londres edo Parisen, be ikusi ahal izango dira euskal sortzailen lanak.

Arratian, Zertu Kultur Elkar-reak antolatuten dau Laburbira, Areatzako eta Igorreko Udalen laguntzeagaz. Izan be, Zertu (BEGITU argitaratzen dauana) euskera alkar-teen federazioa dan Euskaltzaleen Topaguneako partaide da.

### Zozketea

Aurten, nobedade moduan, ikusleak, ikusitako filmen gaineko eretxia emon ahal izango dabe. Eretxia emoten dabenen artean, Euskal Herriko nekazar turismo baten egonaldia zozketatuko da. Horretarako, parte hartu gura dabena www.kameratoi.eus web-gunean dagoan galdetegia bete behar dabe.

## AISIA

# Zastaparrak Asti Taldearen udalekuetan izen emotea hilaren 6 eta 7an

### Erredakzioa

Zastaparrak-ek antolatutako udalekuetarako matrikulea egiteko aukerea egongo da apirilaren 6an eta 7an Igorreko Kultur Etxeko parkean 18:00etatik 20:00etara.

Udalekuak Ondarroan izango dira abuztuaren 1etik 12ra bitartean, 6 eta 17 urte bitartekoentzat.

Prezioa 205 eurokoa da, nebarrebak 306 euro eta umearen izen-abizenak, jaiotze data eta kontaktorako telefono eta helbide elektronikoko bat emon behar dira.

Zastaparrak Asti taldeak igaz 20 urte bete ebazan Arratiako umeai udalekuak eta aisialdirako ekin-tzak eskeintzen.

## ERAKUSKETEAK

# Institutuko ikasleen arte lanen erakusketea Igorreko Kultur Etxean


### Erredakzioa

Arratia Institutuko DBH2, DBH3 eta DBH4ko ikasleak ikasturte honetan zehar egindako 200 ikasle ingururen lanak ikusgai dagoz Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretuan, martiaren 27tik apirilaren 10era arte. Erakusketea aste kulturalaren programazioaren barruan dago.

Erakusketa egitea Igorreko Institutuko Izaskun Mariñelarena eta Borja Estankona marrazketa irakasleen idea izan zan, eta ikasturtean landutako lan multzo handi bat ikusi daiteke bertan. Ikasle bakoitzak gitxienez lan bat dauka erakusketan, beraz 200 lan baino gehiago dira ikusgai dagozan lanak.

Landutako disziplinak, marrazketa, pintura eta eskultura dira;

beste korrante batzuen artean, post-inpresionismoa eta expresionismo abstraktua landu ditue pinturan, eta konstruktibismoa eskulturan. "Espazioa beteteko joera etenbakoia daukagu gure gizartean. Holan ulertzen dogu espresino artistikoa be ezinbestez askotan. Aldiz, ekialdeko kulturako zenbait erreduri arreta jarri, hutsunearen balioaz ohartu izan gara eta berau jarri dogu lehen mailan. Zen kultura edo Lao Tse-ren pentsamentuak ikasleen interesa biztu dau. Musika ego-kia jarri batzuetan, gure buruai etenaldi bat eskeini gura izan deutsegu, arnasa sakon hartu eta pintzela papelean zelan mobiduten dan arreta jarri egin dabe lan, hutsuneari balio handiena emonaz" azaldu deutso BEGITURI Borja Estankona irakasleak.



## DUNBA

# Lurrikarea Nafarroan

### Zeberrioko eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Gu Zeberrioko 5. eta 6. mailako ikasleok lurrikarai buruz berba egingo deusuegu, Nafarroan lurrikarea egon dalako.

Nafarroan 4,4 graduko lurrikarea egon zan martiaren 10ean. Hipozentroa lur azpian kilometro batera kokatu eben eta epizentroa Orikainen. Biztanleak altzarien mobimentuak igarri ebezan. Ez da zauriturik egon eta kalteak gitxi izan dira.

Beste herri honeetan be gertatuteko arrisku handia egon leiteke: Uztarrotzen, Isaban, Pirinioen zati gehienean...

Lurrazaleko plaka tektonikoak (lur-raren geruzaren zati bakotxa, ehun km. sakonera dauana) bata beste-agaz talka egin edo bultzatu egiten dauanean lurrikarea sortzean da.

Plaka tektonikoak alkar bultzatzen dabenean lurra apurtu egiten da eta failak (lur-pitzadurak) sortzean dira.

Zientzialariak ez dabe lurrikarak aurreikusteko sistemarik asmatu.

### Zer egin lurrikara arriskua egon ezker

Lurrikarak baino lehen garatu babes plan bat, simulau eta ziurtatu altzari altuak ez jaustea. Holan lurrikarea hasten danean ez da ezer be ez jausiko.

Gertatzen dan bitartean lehenengo-lehenengoa lasaitasuna gordetea da, gero leku seguru batera joan edo mahai baten azpian ipini belanuniko, eskuak lepoan ipiniz. Lurrikara gertatu ostean garrantzitsuena da nonor zaurituta dagoan ikustea eta egotekotan larrialdietara deitzea (112).



### Nafarroako Orikain herria.

Sismografoagaz neurtuten da. Tresna honek lur-raren dardarea papelean grabatuten dau. Barruan penduloa dauka eta hori mobiduten danean makiltxo bat mobidu arazoten dau eta horrek tintea daukanez papelean marketan dauz dardarak.

Lurrikarak sortu daikezan kalteak Richter eskalearen bidez neurtuten dira.

Honako ondorio honek izaten dauz: lurra mobidu egiten da,

### Argazkia: Noticias de Navarra.

edur jausiak, suteak, lur-pitzadurak, ibaien ibilgunetan aldaketak, olatu handi suntsitzaileak (Tsunamiak), hildakoak eta zaurituak be egoten dira.

Lurrikara handietan, jakina, ondorioak latzagoak izaten dira; txikiagoetan hildakoak egon ez arren azpiegitura arazoak egoten dira.

Gure inguruko herrialdeetan gertatutako lurrikaretan persona asko hil egin dira: Portugalekoa Europako gogorrena izan zan, 8,5ekoa,

1.755ean, 60.000-100.000 persona inguru hil ziran. Italian azken urteotan lurrikara handi bi egon dira, Amatricen (6,1) eta L'Aquila (6,7). Lehenengoan 297 izan ziran hildakoak; bigarreanean, 294. Lorcán (Murtzian) 9 persona hil ziran lurrikara baten ondorioz.

Munduko gogorrena Valdiviako (Txile) izan zan (9,5) 1960ko lorailaren 22an. 1.655 persona hil ziran eta tsunamiak sortu eban. 2011ko martiaren 11n Japonian (9,0) tsunamiak sortu eta Fukushima zentral nuklearrean arazoak sortu ebazan.



AGENDEA

**APRILAK 1**  
**AREATZA**

20:00etan, Rusty-ren kontzertua The Quiet Comer-en.

**IGORRE**

Cartoons Ipuin Musikala Musika Eskolearen eskutik. 17:00etan, Areatza, Artea, Dima eta Zeberio ikasleak; 19:00etan, Arantzazu, Bedia, Igorre eta Lemoakoak Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *Manchester frente al mar*.

Apirilaren 10era arte, Arratia Institutuko ikasleen marrazketa, pintura eta eskultura erakusketeta Erakusketeta Aretoan.

**LEMOA**

Ganzabalek antolatuta, sagardotegira urtekerea. Lizaretako gaina/Erroilbide (832 m.).

10:30ean, Kiran eta Udalak antolatutako berbaldia: "Elkadura eta kirola". Kirolegian.

**UBIDE**

14:30ean, Korrika bazkaria; 18:30ean Korrika Txiki.

**ZEBERIO**

Zine saioa Gaztelekuak. "Gazteak alfonbra gorrian".

**APRILAK 2**  
**AREATZA**

08:00etan, Lamino Mendi Taldearen urtekerea. Lendoño de ariba-Tologomí (1073 m.)-Bedarvide (1.041 m.)-Atezabal (1.027 m.)-Solaiera (1.038 m.)-Txolope (1.027 m.)-Txarlazo (933 m.)-Urduña (autobusez).

**IGORRE**

Bizkaiko Taldekakoa Bertsolari Txapelketa. Arratiako Bagenki, Ipizar eta Taketa Lez taldeak. 12:00etan. Herriotik hasita.

Hilaren 5era arte, Jubiladuentzako txangoa Ventorro-Segovia-Avila.

17:00etan, zinea *La vida de Calabacín*; 19:30ean, *Manchester frente al mar*.

**APRILAK 3**  
**BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 12ra arte, Erioxako Laguardia eta Eltzegora urtekerarako eta Anne Etxegoien eta Aukeran Amiagan ikusteko izen emotea Liburutegian. Urtekerea maiatzaren 6an izango da eta kontzertua, maiatzaren 21ean 19:00etan.

**IGORRE**

10:30etan, Andra Migraduen Topagunea Miriam Herbonen eskutik Kultur Etxean.

**LEMOA**

19:00etan, berbaldi informatiboa. Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linea. Mikel Otero eta Dani Maetz. Elizondoko Kulturgunean. EH Bilduk antolatuta.

**APRILAK 4**  
**LEMOA**

19:00etan, gitara eta piano ikasleen barne entzunaldia. Jubiladuen Etxe gaineko aretoan.

**APRILAK 5**  
**ARTEA**

18:00etan, Jubiladuen alkarteak antolatuta testamentuari buruzko berbaldia, Blanca Gamboaren eskutik Jubiladuen egoitzan.

**APRILAK 6**  
**ARANTZAZU**

17:30ean, peto tailerra; 18:00etan Korrika Txiki; 18:30ean, txokolatada; 00:30ean, Korrikari etxetoko txokolatada.

**AREATZA**

18:00etan, Zaztapparak Asti Taldeagaz jolasak plazan; 19:30ean, Korrika herrikoa; 20:30ean kantu jirea; 22:00etan, jatekoa plazara hurreratzeko dirantentzat; ondoren erromeria Gaztelekuak; 02:30ean, txokolata



Gaztelekuak.

**ARTEA**

12:00etan, Korrika Txiki.

Entzunaldi irekia Musika Eskolan.

**BEDIA**

17:00etatik 18:30era, tailerrak; 18:30ean, Korrika Txiki; 19:00etan, jolasak; 19:30ean, taloak.

**DIMA**

11:00etan, Korrika Txiki.

**IGORRE**

18:00etan, Rugby taberna aurrean: Korrika argazkiak, kantuak eta pintxoak; 21:00etan, erromeria Batek daki taldeagaz Kultur Etxeko plazan.

18:00etatik 20:00etara, Zaztapparren udalekuetan matrikulazioa. Kultur Etxeko parkean.

19:00etan, kuadrilen batzarra Kultur Etxean.

**LEMOA**

17:00etan, Korrika Kulturala. Zirkoa jaia eskolako patioan. Ludotekea bertan egongo da.

**ZEANURI**

18:30ean, tailerrak umeentzat; 20:30ean, Rally-poteoa, Txoko Sagarnatik; 22:00etan, afaia; Korrikako argazki eta Korrikako bideoen ermonaldia. Kantaldia Oier Aslagaz; 02:00etan, kilometroetara bidean Katalin eta Leire trikitilariak lagunduta.

**APRILAK 7**  
**ARRATIA**

Korrika. 00:36an, Bedian. 00:49an, Lemoan. 01:22an, Igorren. 01:52an, Arantzazun. 02:03an, Artean. 02:19an, Areatzan. 02:32an, Zeanuritan eta 03:55ean, Ubiden.

**IGORRE**

18:00etan, CEAREko Veronica Alvarez eta Raquel Celis-en berbaldia "Sexu esplorazioa salerosketa eta asilo eskubidea" Kultur Etxean.

**Onintza Enbeitaren Gure etxe bakarra antzezlanaren Zeanuritan**

Muxikako andrak osotutako antzerki talde amateurrak, *Gure etxe bakarra* antzeztuko dau apirilaren 1ean, iluntzeko 20:00etan Zeanuriko frontoian. Testuaren egilea eta antzeztanaren zuzendaria Onintza Enbeitza bertsolari, kazetari eta politikaria da.

*Gure etxe bakarra antzeztanak* andrak atzen 80 urteotan izan daben bizimodua kontetan dau. Istorioa, hiru neskatik abiarazoko dabe argazki zahar batzuk topau, eta amamari itaunak egiten hasten direnean.

IRAGARKI LABURRAK

**SALDU**

**ALOKATZEN DA**

100 m² dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

**SALGAI**

Gimnasioko materiala salgai. Bankadea, barra, mankuernak eta pesak. Arratian bizi bazara 50 euro garraioa barne. Telefonoa 657 707 725.

**DANERIK LAN BILA**

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Koxeduna. Interesatuak 635 207 386 telefonora deitu.

**ALOKATZEN DA**

Jardunean dagoan estetika zentroa alokatzen da Galdakaoko erdigunean. Hartu-emonetarako deitu 94 456 64 57 telefonora.

**TIRALARIA BILA**

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider

639 293 539.

**LAN BILA**

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabena jagoiteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefonoa 688 647 074.

**ETXEA ALOKAIRUAN**

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

**GARAJEA BEHAR DOT**

Karabana ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuera. Deitu 675 712 841 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Ez dok hiru. Euskal musikaren benetako istorioa antzeztanarako.

Edorta Zurinaga (Zeanuri) Leire Uriarte (Bedia)



**2** Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxoak.

Eneritz Atutxa (Lemoa)




**3** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.

**DENPORA-PASA**

IMAN OLATU




**EZKERRETIK ESKOIERA**

1.- Ikusiezin. 2.- Min daukagunean dinogu. Entzute, ospe. 3.- Letra bat. India. Orroa. 4.- Ezetza. Beldar. 5.- Erakundea. 6.- Galdetzailea. Persona izenordaina. 7.- Kanpoan. (Atz.) Gixi falta. Letra bat. 8.- Berba egin barik. Birritan, zeden. 9.- Pluralaz, kimua, pipila.

**GOITIK BEHERA**

1.- Sugar. Itsusi. 2.- Ustekabea adierazoten dau. Bajatu. 3.- Letra. Argidun astro. (Atz.) Birritan, begiaren erdiko beltzune biribil. 4.- Edari bizi. Letra bat. Gasteiz uriko kanpo herria. 5.- Sanskritoko silaba sagradua. Eutsi, kuturtu. Letra bat. 6.- Gogortu, zailatu. Umeen berbetan mosu. 7.- Probetxua. Nondik atzikia.



Topau Disneyren zazpi personajeren izenak.



**A  
K  
I  
M  
I  
K  
O**

K  
a  
i  
l  
o



umeen moda  
**sew**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tlfnoa. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dugu. Bizarrak egin eta buzkunduten dugu.  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**AKITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tlfnoa: 94 631 91 52  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garante@autoeskola.net

ASEGURUAK: AUTOAK  
ETXE BIZITZAK  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
**ZUZENBIDE**  
ABOKATUAK:  
ZUZ. ZIBILA  
KONTSUMO ZUZ.  
ADMINISTRAZIO ZUZ.  
INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA:  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3, 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Dia %**  
**PEDRO**  
AUTOZERBITZU  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Anatia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**L**  
**ARRATIA** AUTOESKOLA  
karneta eskolaraz bain ezinez  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 63  
e-posta: unda@arratiainet.net

## ANE UNDURRAGA

**"Galeria kontzeptu barria da AUA"**

Ane Undurraga Arriagak Bilboko Gorte kaleko 2 zenbakian arte galeria bat zabaldu dau. Undurraga, kazetaria eta antropologoa da eta Euskadi Irratian esatari lanetan egin dau behar, baita ETBko Burubero saioko erredakzinoan be. Antropologiaren aldetik, pare bat liburu itzuli ditu gazteleratik euskerara; bata, Islandiko balezaleen gainekoa, eta bestea, Gernikako bonbardaketari buruzkoa.

Orain dala hiru urte Igorren Ines Medinaren ikastaroetan parte hartu eban. Artearen onurak lehenengo personan bizi ondoren, arteari dediketea ebatzi dau eta martiaren 18an, AUA arte galeria inaugurau eban Bilbon.

**Erredakzinoa****Ziortza-Bolibarren jaio zinan, baina lotura handia daukazu Arratiagaz.**

Bai. Markinan bizi naz, Bolibarren hain zuzen be, momentu honetan, baina nire familia aitaren partetik, Igorre, Areatza eta Zeanurin bizi da. Ez da kasualidadea, edo seinale bat da akaso, baina Arratian 1920an jaiotako aitita be pintorea zan. Eta ni orain dala hiru urte, Igorreko Kultur Etxean hasi nintzan artea deskubriduten Ines Medinagaz.

Komunikazino munduan ibili naz beharrean, kazetaria eta antropologoa naz eta, baina arteari zuzenean lotu natxako Igorren, Ines Medinaren gidaritzapeko ikastaroetan.

**AUA izena dauka galeriak. Nondik jatorri izena? Zelan definiduko zeunke?**

AUA, Ane Undurraga Arriagaren inzialak dira. Galeria bat da, baina galeria kontzeptu barria. Ez da jentearengandik urruti dagoan galeria klasikoa. Artea ez da zerbaist arraro lez hartzean hemen, personeari oso lotuta dagoan printzipio moduan baino. Ni neu be artetik oso urrun egon naz, nahiz eta txikitatik beti arteari lotuta egon. Familia be arte mundutik dator, baina zatiketa bat euki dot artea eta nire artean. Baina ikusita arteak personeari egiten deutzazan onurak, oinarritzakoa dala bizitzan, eta filosofia horretatik abiatuta AUA sortu dot. Hemen, artea personeari lotutako osagari esentzial bat da eta ezinbestekoa, derrigorrezkoa, eta ez da persona eta kolektibo espezifikoko batentzat, persona eta kolektibo guztiak dago zabalik; batez be balore barriak bul-tzatzen dabezanai.

**Martiaren 18an inaugurau zenuan ezta?**

Bai, ekitaldi batez inaugurau genduan. Galeria transbersala izaneran, eskultura, arte plastikoak eta musika aurkeztu nebazan ekitaldian, zeharkakoa eta multidisziplinara dala erakusteko. Musika lanetan, Pablo Fernandez Arrieta egon zan, Madrilan jaiotako musikari markinarra eta Zeanuriko Musika Eskolan klaseak emoten dituana.

**Zer dago ikusgai AUAn?**

Orain dagoana Aste Santura arte izango dogu. Hiru zutabe dagoz. Alde batetik, nire pintura lanak. Obra plastiko hau izan da proiektuaren hasikerea. Azken urteotan deskubridu dodana erakusten dau, batez be Kultur Etxean Ines Medinaren ikastaroetan hasi nintzanetik. Hiru urtetako lan metafisikoa eta espiritualidade sortzaileari lotutakoa ikusten da. Espresionismo abstraktua landuten dot, beti be, barruko espiritualidadea, baina ez beti erlijioari lotutako espiritualidadea adieratzoteko. Danok barruan daukagun txoko sortzailea. Ikerketa horretatik abiatutako 8 artelan dagoz ikusgai. Hori da zutabe bat.

Bigarrena, eskultura afrikarrak dira. Afrika asko gustetan jata eta atzen 10 urteotan biajeak egin dodaz Afrikara kazetari lanetan. Bertan eskultore familia bat ezetu dot eta proiektu honeri batu jakoz. Amadou Sy eta Samba Sy dira eskultoreak, anaia bi. Hamabost eskultura. Sambak andra biluzien gorputzak landuten ditu batez be, eta Amadouk Afrikako etniai lotutako maskarak, elementuak, natura... Tekaz, ebanoz eta sanba izenekoko egur batez egindakoak. Teka eta ebanoa Senegaldik datozen egur bi dira, ebanoa galzorian dago, baina hemen ikusi ahal da ebanozko pieza pare bat. Sanba egurra Boli Kostatik dator. Familia honek landuten dauan egurra baso jasangarrietatik dator, eta ziurtagiri guztiak ditu. Kalidatzeko lanak dira.

Hirugarren zutabea, oparitutako



gauzak dira. Bilduma "Txakur ametsetak" deitzen da. Txakur ametsetak, Bizkaiko espresino bat, eta beti ilusionauta eta ametsetan bizi dan personeari esaten jako. "Orain be txakur ametsetan zabilz?" Orduan txakur ametsetari baten istorioan oinarrituta egin dot bildumea. Txakur horrek mezuak igortzen ditu gizartera, mezu positiboak beti, persona desbardinai zuentutakoak. Irudiak eta testuak lotuten dodaz proiektu honetan. Katiluak, boltsak, kojina, erregaluak dira, prezio bajuagoak daukie eta popularragoak dira. Horreek be neuk sortutakoak.

**Zer adierazoten dabe zure koadroak? Zer gura dozu komunikau?**

Batez be nire barruko esentzia egiten dot berba. Espresionismo abstraktua da. Lehenengo fasean, sentimentuak adierazoten dodaz, eta gero ikuspegi mentalago eta metafisikoago batez hasten naz koadroagaz dialogetan. Hau da, barne adierazpen batetik abiatutako sormena kontzeptu bihurtzen da.

**Zeintzuk dira artearen onurak?**

Niri benetan onura izugarriak ekarri deustaz arteak. Berbaz adierazoten neban guztia, orain margoz adierazoten ikasi dot. Askotan berbaz,

motz gelditzen nintzan eta orain ni persona osoa izanda, pintzelagaz eta nire koadroakaz berba egiten hasi naz. Zentzu horretan lasaitasuna sentidu dot, askoz libreago, solteago, pozago nago; neure buruagaz konektatu dot. Eta lanpostu estatiko eta finko bat itxi dot, nik honetan sinisten dodala ikusita denpora baterako behintzat. Ibu-profenoa itxi dot, gorputzeko morapilo barik sentiduten naz. Orduan liberazino bat bezala, emozinoak espresatzen ikasi dot. Nik uste dot oso kultura mentaletik gatzala eta emozinoak aparte itxi dirala. Emozinoak adierazoten ikasi dot arteagaz, blokeoak kentzean, neure burua errespetetan, ez engainetan... Prozesu gogorra da, baina ikusita jentek zelan hartu dauan proiektua, eta emoitza ikusita, jarraituteko indar handia daukat.

**Bilboko auzorik bohemioenean... Leku ona da holango galeria bat ipinteko? Ze auzoren historiak be bere pisua izango dau.**

Auzo bohemioa da bai. Parisko Montmartre izan zana, da hau Bilbon momentu honetan eta holantxe izango da aurrera begira. Uste dot Bilboko etorkizuna auzune honetatik doala: apustu barriak, ekintzailetza, diseinatzailak, arkitektuak, artistak, galeriak... Ate bakotxean gazte bat dago bere proiektuagaz... Danetarik dago, azken urteotan asko aldatu da hemengo errealidadea. Oso auzune bizia da, aspektu guztietan, onean zein txarrean, baina uste dot benetako artea estilo honetako auzoetan jaioten dala, apustu barriak eginaz. Sano auzo dibersoa da. Eta dibersidade horren barruan, negozio bakotzak, proiektu ekintzaile bakotzak badauka zeresana. Nik egia esan, auzo honetako proiektuan sinisten dot, Bilboko Udalak laguntzak emoten dauz eta Bilboko Udalaren apustua be bada auzo hau bizibarritzea.



**ALKIZABAL**

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net




[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)









**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA